

GALIZIA. Independenteeek esan dute beren zerrenda onartua izan ez arren «egonezina» islatzea lortu dutela



TORRECILLA / EFE

Xose Manuel Beiras izango da BNGko buruzagia datozen bi urteetan ere.

BNG «PPren antitesia» izan arren elkarrizketa behar dela esan du Beirasek

Bloke Nazionalistako eledun jarraituko du, Batzarrean botoen %91 jaso baititu

Erredakzioa | DONOSTIA

BNG Bloke Nazionalista Galiziarra Xuntan agintean den «PP Alderdi Popularraren antitesia» dela nabarmendu zuen igandean Xose Manuel Beiras eledun nazionalak, baina alderdi horrekin elkarrizketa izatea ezinbes-

tekotzat jo zuen, BNG «bere baitan itxi ez dadin». Alderdi Nazionalistaren X. Batzarraren amaieran egin zituen adierazpen horiek Beirasek. Bertan, botoa eman zuten kideen %91ren sostengua jaso zuen, azken 20 urteetan bezala gutxienez beste bi urtez BNGko

buruzagitza jarraitzeko. Urriko Galiziako Legebiltzarrerako hauteskundeetan emaitza kaskarrak lortu ondoren, ideiak berritzearen aldeko apustua egin zuen Beirasek herenegun.

Koalizioaren barruan sortutako zatiketari garrantzia kentzen saiatu ziren buruzagi nazionalistak; kide independenteei eta Esquerda Nacionalista Beirasek alderdiak, berriz, kritikak ez zituzten guztiz isildu. Independenteei Kontseilu Nazionalera-

ko aurkezturiko zerrenda alternatiboak botoen %27 lortu arren, pozik agertu ziren, «militantziak buruzagitzarekin zuen egonezina» islatzea lortu zutelako. Kontseiluko 50 kideetatik 27 independenteak izango dira; 14 onartutako zerrendan aurreikusitakoak, eta beste 13 independenteen zerrendakoak. UPG Herri Galiziarren Bata-sunak izango da haien ondoren ordezkari gehien izango duena, 11 kiderekin.

Zuzendaritza batzordean ere UPG izango da nagusi, zazpi ordezkariarekin, eta independenteei bost kide izango dituzte.

Esquerda Nacionalista zigor neurriak hartzea aztertzen ari da, alderdiaren erabakiaren aurka zerrenda ofizialean izateari uko egin ez dioten kideei ezartzeko; Beirasi, esaterako.

«Pluraltasuna»

Garaile irten zen zerrendan BNGn dauden zazpi taldeen ahalik eta integrazio handiena lortzen saiatu zela esan zuen Beirasek, baina ezin zela «jende guztia» barneratu, «genero, ideia eta egoera sozialei dagokienez pluraltasuna» lortu nahi baitzuten.

Ideiak berritzea jotzen du BNGk gobernu alternatiba izateko aukeratzat. Ildo horretan, iragan bozen aurretik sozialistekin jarrera hurbiltzen saiatu baziren ere, Beiras urrunduen egin zen asteburuan, jarraitzaileei esan baitzien «bakarrik» egongo direla alternatiba hori eratzeke orduan.

Udal bozetan alkatetza gehiago lortzea da BNGren beharlarako helburua, Beirasek esan zuenez. Alderdi nazionalistaren xede nagusia, ordea, autodeterminazio eskubidea dela nabarmendu zuen. Bloke Nazionalista Galiziarra ez du zentzurik, Xose Manuel Beirasek arabera, ez bada autodeterminazioa lortzeko tresna gisa erabiltzen. Hori dela eta, BNGren barruko taldeen interesak asetzeari baino gehiago aurrerantzean estrategia aldatu eta barne eraberritzea bultzatzeari eman zion garrantzia.

ESQUERDA NACIONALISTA

BNGko taldeak murrizteko asmotan

Esquerda Nacionalista (EN), BNGko zazpi taldeetatik bigarrena, aztertzen ari da Bloke Nazionalistaren barruko indarrak murriztea, hainbeste joera ideologiko ez daudelakoan, Alberto Xullo Rodriguez Feixoo idazkari nagusiak atzo jakinarazi zuenez. Sozialdemokratatzat dute ENkoek beren burua, eta Unidade Galega, adibidez, ideologikoki gertukotzat jotzen dute.

Alderdia «laster» egiteko den batzarrean aztertuko dute aukera hori. Lehenago, ordea, beharbada aste honetan, zuzendaritza bilduko da Kontseilu Nazionalen egoiteari uko egiteko agindua bete ez duten kideei zein zigor ezarri erabakitzeko. Inor ez dutela baztertu nahi esan du Xan Rama Antolaketa idazkariak, baina «gutxienezko arau batzuk» bete behar direla.

ERABAKIGUNEAK

Kontseilu Nazionalen kideen erdiak baino gehiago independenteak izango dira; UPG izango da nagusi zuzendaritzan

Galiziako Xuntarako hurrengo hauteskundeetarako hautagai ez zuela izan nahi iradoki zuen Beirasek alderdiaren batzarrean. Anxo Quintana UPGko kide eta BNGko batzorde eragileko koordinatzaile berria —bigarren buruzagia izango da, beraz— izan daiteke haren ordezkotako bat. «Barne batasuna eta proiektu nazionalistari leialtasuna» eskatu zien Anxo Quintanak Blokeko kideei.

BIDEBIETA INSTITUTOA BATXILERGOA

□ ZIENTZIAK

□ HUMANITATEAK

□ HEZIKETA ZIKLOETARA BIDERATURIKO BATXILERGOA

□ EUSKARAZ / GAZTELERAZ

www.bidebieta.com – Tel.: 943 39 02 40

MUSIKA BATXILLERGOA LEIOAKO UDAL KONTSERBATORIOAN

Musika eta Batxilergo ikasketak zentro berean

**Ikasketak orokorrak
LEIOAKO J. M. BARANDIARAN INSTITUTOKO
irakasleen eskutik**

Informazio-batzarrea: Maiatzaren 2an 20etan
Matrikula-epaia. Maiatzaren 2tik 17etara
Leioako Udal Kontserbatorioan
Iparragirre etorbidea, 76, tfn. 94-463 86 83



Lekeitioko Udala

IRAGARKIA

LEKEITIOKO ARAU ORDEZKATZAILEEN
ALDAKETA PUNTUALA:

Komunitateko ekipamenduen sistema orokorrari buruzkoa

HASIERAKO ONARPENA

Lekeitioko aparteko Udalbatza Osoak, 2002ko apirilaren 24an izan zuen batzarrean, honako hau onartu zen:

1. Komunitateko ekipamenduen sistema orokorrari buruzko Lekeitioko Arau Ordezkatzaileen aldaketa puntualari hasierako onarpena ematea.

2. Erabaki horri buruzko iragarkia Bizkaiko Egunkari Ofizialean eta lurraldeko hedapen handienetako egunkari bitan (2) argitaratzea.

3. Iragarkia argitaratzen denetik hasi eta hile beteko epea ematea, herritarrek jakitun geratzeko eta erreklamazioak aurkezteko.

Lekeitioko, 2002ko apirilaren 25ean.

Jaione Murelaga Izagirre, Lekeitioko Udaleko alkatea.